



## Zergatik fluoratu ura?

M. Jesus Sarrionandia\*



**H**ortzetako txantxarra osasunean eragin handia duen gaixotasuna da, eta neurri batean pertsona guztiei erasotzen die. Txantxarra zergatik sortzen den ezagutzen denetik, neurri batzuk hartuz gero ebita daitekeela ikusi da. Neurriak hauek dira: hortzak garbitu, azukre gutxiko elikagaiak jan eta topikoki nahiz sistematikoki fluoroa hartu.

Iturrietako uretan, fluoruroak berez egoten dira, baina kontzentrazio ezberdinetan disolbatuta (neurri txikienetik, osasunerako kaltegarria den neurriraino). Mende honen hasieran honako hau ikusi zen: demografia, kultura eta elikadura aldetik berdinak ziren taldeetan, txantxarraren intzidentzia desberdina zela. Faktore babesgarri bat aurkitu zen: fluoroa.

Azkeneko 50 urteotan egin diren ikerketetan, edateko urak milioiko 0,7 eta 0,2 zati fluor-oi baditu, behin-behineko hortzetan eta hortz iraunkorretan txantxarraren intzidentzia txikiagoa dela ikusi da. Fluoroa hartzeko modu ezberdinak daude, baina guztietan edateko ura fluoratzea da, kostu/irabazi erlaziorik hobereena duena, batez ere populazio osoaren babesa bermatzen duelako.

Fluoroak ez du hortzen esmaltea gogortzea bakarrik egiten. Txantxarraren hastapeneko kalteak sendatzen ere laguntzen du. Horregatik, fluoroa haurtzaroan hartzeak besteko eragina du bizitza guztian hartzeak. Hau da, nahiz eta babesik gehien haurtzaroan eskaini, helduen hortzetarako ere abantailak ditu.

Listuaren bidez tokian (ahoa) fluoroa sarri ematea, noizbehinka dosi handiak hartzea baino eragingarriagoa da.

Fluoratutako urak edaten dituzten bizilagunek, gainerakoek dituzten esmalte desminalizatu berdintsuak izan arren, hortzetako txantxar-zulo gutxiago izaten dituzte. Ikerketa ezberdinen arabera, uren fluoroazioak txantxar-zuloaren garapena % 50 atzeratzen du.

1945. urtean Estatu Batuetako Grand Rapids herrian, edateko ur publikoari fluoroa gehitu ziotenetik, hainbat herrialdek (batez ere industrializatuenean) seguitu diote bide berari. Gaur egun, besteak beste, EEBetako biztanleriaren % 51 k artifizialki fluoratutako ura edaten du, Zeelanda Berria % 50ek, Australiar % 50ek, Irlandan % 70ek eta Hong Kong eta Singapurren % 100ek.

Azken 40 urteotako erabilpen artifizialak eta berezko fluorazio naturalak fluorazioaren segurtasuna bermatu egiten dute. Fluoroazioak, milioiko zati bateko proportzioan erabiltzen denean, ez du osasunean (ezta ingurugiroan ere) kalte ezagunik eragiten.

Osasun publikoari dagozkion neurri hauek hartuz gero, daukagun ezagutza zientifikoa- ren arabera, gizakien sufrimendu eta kalteak arindu egingo lirarteke, eta hauek aisa gaindituko lituzkete horren ondorioz sortutako balizko kalteak edo diru-galerak.

Komunitate Autonomoan edateko uraren fluoro-kopurua, batezbeste milioiko 0,2 zatikoa baino txikiagoa da, eta txantxarraren profilaxia egiteko milioiko zati 1 ekoa behar luke izan.

\* Peditra. OEEko kidea.